



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengo agintzea erabaki dut:

2026ko otsailaren 10eko 229 zkidun Alkate Dekretuaren zuzenketa, bere izenburua izanik: INFORMATIKA LAGUNTZAILE BERRIA IZENDATZEA (2026ABEE0032)

Akats batzuk antzeman dira 2026ko otsailaren 10eko 229 zenbakidun Alkate Dekretuan, eta 39/2015 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen inguruko Legearen 109.2. artikulua arabera:

Lehenengoa.- 2026ko otsailaren 10eko 229 zkidun Alkate Dekretua baliogabetzen dut,

Bigarrena.- Dekretu berria ematen dut, aipatutako dekretuko akatsen zuzenketa eginez.

INFORMATIKA LAGUNTZAILE BERRIA IZENDATZEA (2026ABEE0032)

Udal teknikariaren txostenak honela dio hitzez hitz:

Informatika Laguntzaile (C1 taldekoa) plaza lehiaketa bidez betetzeko hautaketa-prozesua deitu zen iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdien barnean, betiere 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien arabera.


Epaimahai kalifikatzaileak, 2024ko otsailaren 16ko saioan, merezimenduen behin betiko balorazioa eta azken kalifikazioak onartu zituen.

2026ko otsailaren 4an, aurrez aipatutako kalifikazioetan lehenengo aurkitzen zen hautagaiak zegokion postuaren gaineko ukoa helarazi zuen. Hori kontuan hartuta, haren ondorengo hautagaira jo eta AINTZANE URRUTIA IGARTUA proposatzea erabaki da deialdiaren xede den plaza betetzeko.

Proposatutako hautagaiak deialdiko oinarrietan eskatzen diren hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzen honako egiaztagiri hauek aurkeztu beharko ditu Udaleko Erregistroan, gehienez ere 20 egun baliouduneko epean -jakinarazpen hau Oñatiko udalaren WEB orrian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita-:

1. Kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez dagoela eta diziiplina-espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik kendu ez dutela dioen zinpeko adierazpena.
2. Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasun-arrazoiren batean sartuta ez egotearen zinpeko adierazpena. (Lehenengo bi puntu horietan jasotako zinpeko aitorpenerako, jakinarazpen honi erantzen zaion eredia erabili daiteke)
3. Oinarrien arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzeko, kontratua egin aurretik Oñatiko Udaleko mediku-zerbitzuak behar diren osasun azterketa eta frogak egingo dizkio. Aurreko edozein kasutan, uko egiten badu edo ez dela gai edo gaitasun mugatuak dituela ondorioztatzen bada, proposatutako hautagaiak kontratatua izateko eskubideak galduko ditu.





OÑATI
dabilen herria

Deialdia arautu duten oinarrietan jasotakori jarraituz (hain zuzen, 16.2. artikuluan), kontratatuari 3 hilabeteko probaldia egingo zaio eta udalean bertan egingo da, Oñatiko Udaleko Idazkariaren tutoretzapean.

Horregatik guztiagatik, teknikariaren balorazioa eta proposamena ikusirik, nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizen honek, erabakitzen dut:

Lehenengoa.- AINTZANE URRUTIA IGARTUA proposatzea Informatika Laguntzaile (C1) postua betetzeko.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2026ko otsailaren 10ean


OÑATIKO UDALA
Alkatea

Izaro Elorza Arregui

